



2026
2027



IMAJ NATZEN al duzu?



Lema
2026/2027

2.ETA 3.
ZIKLOETARAKO
BALIABIDEAK



1. IRAILA: Irudikatu dezakezu... izan daitekeen guztia?

Hileko motibazioa

Irudikatu dezakezu... pentsatzen duzun guztia, orain amesten duzun guztia, lortu daitekeela? Bada, irailak aukera hori ematen digu. Iraila gure aurrean zabaltzen den ate bat da, barruan dagoen guztia aurkitzeko. Orri zuri bat bezalakoa da; nahi dugun bezala erabil dezakegu. Irudimena astindu eta artelan bat marraztu, sentitzen dugun guztia idatzi, papezko hegazkin bat egin, edo bururatzen zaigun beste edozer. Irailak hutsik dugun motxila hartu eta egunez egun bizitzaz betetzeko aukera ematen baitigu. Ikasturte honetan amesten ditugun eta Jainkoak gudan erein dituen gauza guztiez. Irudikatu dezakezu zer izan daitekeen... ilusioa eta maitasuna ipintzen baditugu egunero hasten dugun bide honetan?

Septiembre 7/9:

ITZULTZEKO POZA?

Baliabideak:

IRUDIA:



PRESENTZIAN:

Begiak itxiko ditugu. Arnasa sakon hartuko dugu. Hainbat aldiz.
Orain, Jesus ekarriko dugu gogora. Bera gure alboan dago une oro.
Eta orain ere bai. Sentitu ezazu. Zure baitan dago, zure ondoan, zurekin.
Hasi zure gaurko otoitza:
Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean... Amen

MOTIBAZIOA:

Irudikatu dezakezu gelditzea eta oraintxe bertan sentitzen duzun horretan pentsatzea? Zer emozio daude? Ez al duzu sentitzen gelditzeko denborarik ez daukazula?

Bideo hau arreta handiz ikustea nahi dugu, ezertxo ere galdu gabe:

BIDEOA: Sentimenduak eta emozioak, *Inside out*

https://youtu.be/2Za6cbH-77c?si=VypCRP_Cz7jSpWph

PARTEKATU:

Ikusi eta gero, bideoko emozioen batekin identifikatuta sentitzen zara? Zeinekin? Noiz sentitzen dituzu besteak? (Partekatzeko unea).

Normala da egun hauetan emozioz beterik egotea: urduritasuna, poza, zirrara, hutsetik has-tea, ikasgelan nor egokitu ote zaidan jakiteko nahia...

Emozio batzuk onak izan daitezke... Beste batzuk ez hainbeste... Denak ondo daude, ordea, laguntzen digutelako hazten, norbere burua kontrolatzen eta besteekin batera bizitzen.

AMAIERA:

Gaurko otoitza amaitzeko, aitagurea esango dugu denok batera, eta hasiera honek pozez eta une atseginez bete gaitzan eskatuko dugu.

San Martzelino Champagnat... Maria, gure Ama Ona...

Asteko konpromisoa:

Irailak 14:

ZER AURKITUKO DUGU?

Baliabideak:

PRESENTZIAN:

Begiak itxiko ditugu. Arnasa sakon hartuko dugu. Hainbat aldiz.
Orain, Jesus ekarriko dugu gogora. Bera gure alboan dago une oro.
Eta orain ere bai. Sentitu ezazu. Zure baitan dago, zure ondoan, zurekin.
Hasi zure gaurko otoitza:

Aitarene eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean... Amen.

IPUINA: Nire lehen eskola eguna

Iratzargailuak jo zuen —tirrin!—: jaikitzeke ordua zen. Amak logelako atea zabaltu zuen eta musu gozo batez esnatu ninduen. Esan zidan: "Peru, jaikitzeke ordua duzu, lehen eskola eguna da gaur". Ametsen artean aditu nion, eta erdi lo jaiki nintzen.

Urduri samar nengoen. Lagunak nola izango nituen kezkatzen ninduen, sekula ez banituen ikusi. Hori guztia nerabilen gogoan hortzak garbitu artean, gosaldia eta gero.

Gurasoek eskolara eraman ninduten eta ikasgelako atean utzi ninduten.

Maistra hurbildu zitzaidan. Txeraz agurtu ninduen, izena galdetu zidan eta mahaia esleitu zidan.

Lagun berriak egiteko ordua zen. Arazoa zen ez nekiela nola, baina.

Bat-batean, maistrak klasea hasi behar zuenean, zarata zetorren korridoretik, eta zer gertatzen ari zen begiratzera joan zen.

Ikasgelako atean zegoen haur bat zen. Haren aurpegia ikusita, ematen zuen ez zela sartzerantz animatzen. Maistrak berotasunez hitz egin zion arren, haurrak lotsa aurpegia zeukan.

Beraz, hurbiltzea erabaki nuen, eta hauxe esan nion irribarre handi batez: "Kaixo, ni Peru naiz. Zer iruditzen zaizu nire ondoan esertzea?". Zalentzarik egin gabe, erantzun zidan: "Noski, ni Peio naiz".

Ikasgelan sartu ginen batera, eta mahai berean eseri.

Pozik nengoen, lagun berri bat neukalako. Une horretan ulertu nuen adiskidetasun bat has-teko modurik onena konfiantza eskaintzea dela, eta, jakina, irribarre handi bat ere bai. Orain lagun asko ditut, baina Peio eta biok lagunik onenak izango gara beti.

IRUDIA:

Aste honetan pentsatuko dugu zer aurkituko dugun ikasturtean zehar.



Partekatzeko garaia:

- Zer iradokitzen dizu argazki honek?

GOGOETA:

- Jesus sartzeko zain dagoela ikusten dugu... Aurkituko duenari adi. Ez daki zer dagoen atearen beste aldean, baina ez du irribarrea galdu.
- Zer IRUDIKATZEN DUZU ZUK ikasturte honetan?
- Zer erronka irudikatzen duzu ikasturte honetan gainditzea?

DENBORAREN KAPSULA: Ikasle bakoitzak ikasturte honetarako xede bat idatziko du orri zati batean. Denak bildu eta poto edo kutxa batean gordeko dira ikasturte amaierara arte eta, orduan, zabaldu eta xedeak erdietsi dituzten egiaztatuko da. Xede hori betetzeko indarra eskatzen diegu Jainkoari eta Ama Onari. Irudikatu dezakezu xedea erdiestea?

AMAIERA:

Otoitza bukatzeko gogoratuko dugu nork bere mugak gainditzera eta denok elkarri laguntzera animatzen gaituela ikasturte berriak, eta denok garela Aita beraren seme-alabak...

Aita gurea...

San Martzelino Champagnat...

Maria, gure Ama Ona...

Asteko konpromisoa:

Irailak 21:

BERRIZ TOPO EGITEA?

Baliabideak:

PRESENTZIAN:

Begiak itxiko ditugu. Arnasa sakon hartuko dugu. Hainbat aldiz.

Orain, Jesus ekarriko dugu gogora. Bera gure alboan dago une oro.

Eta orain ere bai. Sentitu ezazu. Zure baitan dago, zure ondoan, zurekin.

Hasi zure gaurko otoitza:

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean... Amen.

IRUDIA:



BIDEOA: *Runaway* animaziozko film laburra

Bideo bat ikusiko dugu, eta oso adi egotea nahi dugu... Eta aurten maite ditugun guztiekin berriz egiten badugu topo? Ez galdu ezertxo ere:

<https://youtu.be/P7k2MkVYLDE>

DINAMIKA:

Berriz topo egin nahi duzuen eta gogoan edukitzen jarraitu nahi duzuen pertsonaren izena arbelean orain idazteko gonbit egiten dizuegu. (Denon artean parteka dezakegu, edota aldameneko ikaskidearekin...).

AMAIERA:

Otoitza bukatzeko gogoratuko dugu hainbeste ikusten ez ditugunekin berriz topo egitera animatzen gaituela ikasturte berriak... Eta lagun berriak egiten jarraitzera, eta beste batzuk ezagutzeko aukera ematera. Denok Aita beraren seme-alabak garela gogoratzeko, otoitz egingo dugu:

Aita gurea, zeruetan zaudena...

San Martzelino Champagnat...

Maria, gure Ama Ona...

Asteko konpromisoa:

Irailak 28:

IKASTURTEKO GAUZA ZORAGARRIAK

Baliabideak:

IRUDIA:



PRESENTZIAN:

Begiak itxiko ditugu. Arnasa sakon hartuko dugu. Hainbat aldiz.
Orain, Jesus ekarriko dugu gogora. Bera gure alboan dago une oro.
Eta orain ere bai. Sentitu ezazu. Zure baitan dago, zure ondoan, zurekin.
Hasi zure gaurko otoitza
Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean... Amen.

MOTIBAZIOA:

Eta gaur irudikatzen badituzu ikasturtean aurkituko ditugun gauza zoragarri guztiak?

Horretarako, film labur bat ikusiko dugu lehenik, lagunduta egotearen garrantzia erakusten duena.

BIDEOA: Animaziozko film laburra elkarrekin lan egin eta bat eginda egotearen garrantzia-ri buruz

<https://www.youtube.com/watch?v=Gf5v4BdXIYY>

¿Qué habéis sentido? ¿De qué trata?

DINAMIKA:

Orain, oso jarduera erraz bat proposatuko dizuegu. Taldetan edo errenkاداتan, ikasle batek pertsona baten atal bat marraztuko du orri batean: burua, gorputza... Ikaskideari emango dio orria, eta hark osatzen jarraitu behar du, beste atal bat gehituz: besoak, zangoak... Eta horrelaxe, denek parte hartu arte.

Keinu horrek adierazten du denek elkarlanean aritu behar dutela, gela eraikitzeko, taldea sortzeko, giro ona mantentzeko, lagun izatera iristeko. Bakoitzak bere onena jarriko du.

AMAIERA:

Amaitzeko, Andre Mariari otoitx egingo diogu elkarrekin. "Agur, Maria, graziaz betea...".

San Martzelino Champagnat...

Maria, gure Ama Ona...

2.URRIA: Irudikatu dezakezu... inor bakarrik ez ibiltzea?

Hileko motibazioa

Zure presentzia eta zure bizitza aldea da. Zure eguneroko ekintzek, soilenek, norbaiten bizitza argizta dezakete. Ez gutxietsi zeure burua. Zu besteentzako itxaropena izan baitzaitzake. Etsipena dagoen lekuetan, argia izan zaitezke aurrera egiteko bide baten bila da biltzanentzat. Zeren zu, zure bizitzaren ereduarekin, bakarrik dagoenarentzako bidea zara. Jainkoak besteentzako BIZITZA gisa amestu zaitu. Ez zara kasualitatea. Misio batekin sortua izan zinen. Munduko Argia izatea. Tresna izatea. Jainkoaren eskuak zara munduan.

Urriak 1:

Baliabideak:

OTOITZA:

"Jesus Jauna, eskerrak ematen dizkizugu egun berri honengatik. Lagundu iezaguzu gogoratzen inoiz ez garela bakarrik ibiltzen, Zu gurekin zaudelako eta gurekin daude, baita ere, gure adiskideak, maisu-maistrak eta familia. Irakats iezaguzu kideak izaten, beharra duenari laguntzen eta elkarrekin ibiltzen, alaitasunez eta errespetuz. Gaur izan gaitezen besteentzako argi, eta gure eskola bake eta adiskidetasun leku bihurtu. Amen".



GOGOETA:

- Zer egoera zail bizi izan dituzu? Nire haran ilunak...
- Nork lagundu dizu horiek konpontzen edo horiei aurre egiten? "Zu nire ondoan zaudelako..."
- Jesus da zure bizitzako laguntzetako bat?

SALMOA:



Asteko konpromisoa:

Nahiz eta sentitu inork ez zaituela ulertzen, jainkoak zure negar isila ikusten du. Eta zure ondoan dago, haranik ilunenean ere. **Ekarri gogora bolada zail batean dagoen norbait. Nola sentiaraz diezaiokezu ez dagoela bakarrik?**

Octubre 5/10:

Baliabideak:


MOTIBAZIOA:

Eguna hasi aurretik, kontuan hartu behar ditugu Jainkoa, Jesus, Espiritua eta Ama Ona. Haiek dena oparitu digute. Eskerrik asko, garen guztiagatik eta daukagun guztiagatik, hain zorioneko sentitzeagatik.



EBANJELIOA: Markos 2, 1-12

Zenbait egunen buruan, berriro Kafarnaumen sartu zen Jesus. Eta etxean zegoeneko berria zabaldu zen. Bildu zen jendetzarekin, ez zegoen inon tokirik, ezta atarian ere. Eta mezua adierazten zien. Hartan, elbarri bat ekarri zioten lau lagun artean. Baina jendetzagatik ezin zuten eraman Jesusenganaino. Orduan, bera zegoen parean etxe gaina zulatu eta zulutik behera eraitsi zuten elbarria, etzana zegoen ohatilan. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Seme, barkatuak dituzu bekatuak». Bazen han eserita zenbait lege maisu, eta hau zioten beren baitan: «Zer ari da hori horrela? Biraoka ari duk. Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak berak baizik?». Baina Jesusek bere barruan haien gogoetak igarri eta esan zien: «Zergatik dituzue gogoe-ta horiek zeuen baitan? Zer da errazago, elbarriari "Barkatuak dituzu bekatuak" esatea ala "Jaiki, hartu zeure ohatila eta zabiltza" esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: «Zuri diotsut: Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera». Berehala jaiki, ohatila hartu eta guztien aurrean atera zen. Harriturik gelditu ziren denak, eta Jainkoa goresten zuten, esanez: «Ez dugu sekula horrelakorik ikusi».



BIDEOA:

<https://www.youtube.com/watch?v=SqbGv90x5fA>

GOGOETA:

Horiek horrela, galdera hauei erantzungo diegu gure baitan:

- Horrelako lagunak ditut nik?
- Fariseuak bezalakoak gara, jakin gabe kritikatu besterik egiten ez dutenak?


Asteko konpromisoa:

"Egiazko adiskidetasunak ez dauka mugarik, ezta oztoporik ere". Zer egiteko prest zaude, lagun batengatik?

Urriak 12:

Baliabideak:

BEGIRATU IRUDIEI:



GOGOETA:

- Ekaitz bat zeharkatzen ari zara gaur?
- Jainkoa isilik dagoela sentitzen duzu?
- Zein dira zure beldurrak edo zailtasunak?
- Eta galdera aldatzen baduzu? Hots, ez "Zergatik niri?", baizik eta "Zertarako, Jainkoa?".

Jainkoak ez du lorik egiten. Ez zaitu ahaztu.

Jainkoaren isiltasunak ez du esan nahi ez dagoenik.

Zure fedea handitu egiten da ezer ulertu gabe ere sinestea erabakitzen duzunean.

CHAMPAGNATEN ISTORIOAK: Hark ere zailtasunak eduki zituen, eta ez zuen inoiz ahaztu konfiantza izatea eta otoitz egitea...



ESALDIAK:

In your storm, don't follow your heart; follow the Word of God.

«Beraz, mezutik dator sinestea, eta mezua Kristoren berri ematea da». (Erromatarrei 10, 17)

«Dena dezaket indartzen nauen Kristorengan». (Filipoarrei 4, 13)

Nahiz eta Jainkoa jardunean ez ikusi, Bera badago.

Asteko konpromisoa:

Urriak 19:

IPUINA: Guno, lanparako gizona

"Bazen behin, duela ehunka urte, gizon bat Ekialdeko hiri batean. Gau batean kale ilunetan zehar zebilen, olio lanpara bat pizturik zeramala. Hiria oso iluna zen ilargirik gabeko gauetan, orduantxe bezala. Une jakin batean, lagun batekin egin zuen topo. Lagunak ikusi eta ezagutu egin zuen bat-batean. Guno zela ohartu zen, herriko itsua. Eta esan zion: Zertan ari zara, Guno, lanpara bat eskuan? Ez duzu-eta ikusten! Eta itsuak erantzun zion: Ez daramat lanpara nire bidea ikusteko, kaleetako iluntasuna buruz baitakit. Argia daramat besteek beren bidea aurkitu dezaten ni ikusten nautenean. Ez da garrantzitsua niri balio didan argia soilik, baita nik erabiltzen dudana ere, beste batzuek ere baliatu ahal izan dezaten".



GOGOETA:

Beraz, ez dezagun inoiz zalantzan jarri Jesus barruko eta kanpoko ilunpe osoa argiztatzeko gai denik, Jesus, bakardade orotan laguntzen duena, min oro bere egiten duena, huts oro betetzen duena. Argia izateko, ez diogu utzi behar itsu gaudela aitortzeari, eta egunero eskatu behar diogula argia ez soilik argia daukanari, baita "argia denari" ere. Eta, ipuineko itsua bezala, nahiz eta argia bete-betea ez eduki, Jesusengan dugun fedearen lanpara pizten badugu, argia izango garela, argia emango dugula, gure bizitzako pertsona guztiengana eta ibilbide guztietara eramango dugula Jesus, munduko argia.

Zer jarrera aldatu behar dut, nire argia beste batzuegana iristeko zailtasunik gabe?

OTOITZA:

Jesus Jauna, zu zara benetako argi ororen iturria.

Bihur nazazu tresna.

Nire hitzek eta ekintzek eraman diezaietela argia gaizki, nekaturik eta goibel daudenei.

Zure presentziarekin irrikaz dagoen bihotz bat eskatzen dizut gaur, zure Hitzean ainguratutako gogo

eta esker onik gabe zerbitzatzeko prest dauden eskuak.

Alda nazazu, nire bizitza zure Argiaren isla fidela izan dadin.

Amen.

Asteko konpromisoa:

Errepikatu ezazu esaldi hau. Idatz ezazu agendan. Konta iezaiozu Jesusi: "Gaur argia izango naiz, norbaitentzat".

Urriak 26:

Baliabideak:

IPUINA: *Itsasargi txikia*

Gaur, itsasargi txikiaren istorio inspiratzailea aurkeztuko dizuegu. Itsasargi txikia kristau ipuin bat da, eta gure argiak zeinen txiki dirudien ez duela axola irakasten du, Jainkoak gaurza handietarako erabil baitezake. Zoaz itsasargi txikiarekin haren abentura handian zehar, gutako bakoitza besteentzako argi izan daitekeela deskubritzeko.

<https://www.youtube.com/watch?v=bNw8aWeHjJs>

ESALDIA:

"Ez du axola zeinen txikia zaren. Maitasunez dirdira egiten duzunean, gaurik ilunena argizta dezakezu".

EBANJELIOA:

Mateo 5, 14-16: «Zuek zarete munduarentzat argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen hiria».

IRUDIA:



Asteko konpromisoa: Asteko une zoriontsuen zenbaketa

Eman eskerrak Jesusi, aste honetan zuretzat itsasargi izan direnengatik, beren argia oparitu dizute eta.

3. AZAROA: Irudikatu dezakezu... denek ahotsa izatea?

Hileko motibazioa

Ahotsa da sentimenduak, emozioak, bizipenak, pozak eta kezak adierazteko erabiltzen duzun tresna. Irudikatu dezakezu ezin hitz egitea? Edo, nahiz eta hitz egin, esan behar duzuna inork ez entzutea? Hil honetan, beldurrik gabe entzuten den ahots bat irudikatuko dugu, isildua izan gabe ekarpenak egin ditzakeen ahots bat, besteek entzungor egin gabe elkarriketan aritzen den ahots bat. Zubiak eraikitzen dituen ahots bat, askotariko begiradak batzen dituena eta dibertsitateak banatu ez baizik eta aberasten duela gogorarazten diguna. Pertsona oro askatasunez eta duintasunez mintzatu daitekeen mundu bat irudikatzea; hori da gizarte bidezkoago eta humanoago bat lortzeko lehen urratsa. Izan gaitzen ahotsik ez dutenen ahotsa.

Entzuten ez badizute, ez isildu, jarraitu, esan ozenki! Asko duzu esateko.

Azaroak 2:

Mariari buruzko otoitza. Bera da gure ahotsa ekaitzean, eta gure argia iluntasunean. Maria zerua zabaltzen duen egunsentia da, gure ahotsak Jesusenganaino iristeko.

Baliabideak: Jn 2, 1-11

EBANJELIOA:

Hiru egunera, ezteiak izan ziren Galileako Kanan, eta han zen Jesusen ama. Jesus eta beronen ikasleak ere gonbidatu zituzten ezteietara. Eta ardoa amaitu baitzen, esan zion amak Jesusi: «Ez dute ardorik». Jesusek erantzun zion: «Utz nazazu bakean, emakume. Oraino ez da etorri nire ordua». Jesusen amak honela esan zien zerbitzariei: «Egin Horrek esango dizuen». Baziren han harrizko sei ur ontzi, juduek beren garbikuntzetarako erabili ohi zituztenak, ehunen bat litrokoa bakoitza. Jesusek esan zien zerbitzariei: «Bete ontziak urez». Haiek goraino bete zituzten. Orduan, esan zien: «Atera pixka bat eta eraman mahaizainari». Hala egin zuten haiek. Mahaizainak ardo bihurtutako ura dastatu zuen, non goa zen jakin gabe; zerbitzariek, bai, bazekiten, beraiek atera baitzuten ura. Ardo berria dastatu zueneko, senarrari dei egin eta esan zion: «Jende guztiak ardorik onena atera ohi du lehenik eta, jendea aski edanda dagoenean, arruntagoa; zuk, berriz, orain arte gorde duzu ardorik onena». Bere lehen mirarizko seinale hau Galileako Kanan egin zuen Jesusek; honela, bere Jainko aintza agertu zuen, eta ikasleek sinetsi egin zuten harengan.

GOGOETA:

Kanako ezteietan, Mariak premia ikusi zuen: «Ez dute ardorik». Eta uste osoa zeukan Jesusengan. Haren ahotsak eta fedea Jesusen lehen seinalerako bidea zabaldu zuten. Pasarte horrek irakasten digu gure hitzek eta ekintzek ere aldaketak susta ditzaketela, fedetik eta maitasunetik sortzen direnean. Mariaren ereduari jarraituz eta Jesusi entzunik, itxaropen eta eraldaketa oihartzun bihur gaitezke besteen bizitzan.

ABESTIA: Como María quiero ser

<https://www.youtube.com/watch?v=KYOV32aD4U>

Asteko konpromisoa:

Zer keinu egin ditzaket nire egunerokoan, besteen artean aldaketa bat eragin dezaketena?



Jn 2,1-11 • Domingo II Tiempo Ordinario • Ciclo C

Azaroak 9:

Baliabideak:

MOTIBAZIOA:

Egunerokoan, bizitza ez da erraza zenbaitetan. Batzuetan oztopoak aurkitzen ditugu, erronka konplexuak. Jainkoak badaki, ordea, hori erdiesteko behar duguna daukagula gure baitan. Begiratu ondo zure barruan. Eta, laguntza behar baduzu, albo batera begiratuta, ziur bermatzeko moduko esku adeitsu bat aurkituko duzula. Guk zoriontasuna aurkitzea nahi du Jainkoak, besterik ez. "LORTU DEZAKEZU, ZIN DAGIZUT!".

ABESTIA: *Por las veces, Conchita.*

Zenbat bider geratu garen egin nahi genuen zerbait egiteko gogoarekin! Eta zenbat bider tratatu dugun gaizki geure burua, pentsatu dugun ez geneukala aurrera egiten jarraitzeko indarrik, zenbat aldiz gutxietsi dugu geure burua... Inoiz ez dago ezer ezinezkorik, zeure buruarengan konfiantza baduzu.

<https://www.youtube.com/watch?v=E-vu-xUBVu0>

GOGOETA:

Besteei entzuteaz gain, zeure buruari entzuten diozu? Zeure buruari ahotsa ematen diozu? Ahotsa badugula jakitea garrantzitsua da, eta ahotsa ematea oso lagungarria izan daiteke behar handiena dutenentzat.

Egoera askotan, ahotsik gabe sentitzen gara, edo beste batzuk ahotsik gabe sentitzea eragiten dugu. Gaur, beharbada ahotsik gabe sentitu garen egoerak ekarriko ditugu gogora, eta beste batzuk ahotsik gabe sentitzea eragin dugun egoerak ere bai.

IRUDIA:



Asteko konpromisoa:

Ekarri gogora ahotsik gabe sentitzea eragin dugun pertsonak, eta gure konpromisoa BARKA-MENA eskatzea izango da. .

Azaroak 16:

Baliabideak:

IPIUNA: Istorio bat irakurriko dugu.

Hitz egiteko zailtasunak zituen neska bat zen Lia. Horregatik, eskolan, inork ez ziola entzuten ematen zuen. Haren hitzak barre eta berriketaldien artean galtzen ziren, eta bera txiki eta bakarrik sentitzen zen.

Egun batean, irakasleak talde lana egiteko eskatu zuen. Liak, ahalegin handiz, ideia bat esatea lortu zuen. Hasieran, inor ez zen ohartu... Baina, laster, Liaren proposamena bikaina eta dibertigarria zela konturatu ziren denak.

Ikaskideak jolasetan eta barreetan Lia kontuan hartzen hasi ziren. Emateko asko zeukala ohartu ziren, eta zoriontsu sentitu zen, azkenean haren ahotsak ere axola zuelako.

Egun horretatik aurrera, denak lagunak izan ziren, abenturak partekatu zituzten... Eta, ospatzeko, jai handi bat egin zuten elkarrekin, barrez eta hizketan, den-denei entzunda.

GOGOETA:

Horrelako egoerarik bizi izan duzu?

Nola jokatu duzu?



Asteko konpromisoa:

Hausnartu zure bizitzako Liaren bati buruz. Zer egin dezaket harengatik, entzuna eta mai-tatua senti dadin? Liak hitz egiteko izan zuen indarrak behar dutenen alde eskatzen diogu Jaunari, eta beharra dutenei konfiantza eta indar horiek emateko gauza izan gaitezen.

Noviembre 23/11:

Baliabideak:

HITZA: Esaera Zaharrak 31, 8-9

"Ireki ahoa hitz gabearen alde, zorigaiztokoen eskubidea babesteko. Ireki ahoa zuzentasunez epaitzeko, dohakabe eta behartsuen eskubideak babesteko".



ALBISTEA:



LOS NIÑOS DE ALCALÁ APORTAN SOLUCIONES CREATIVAS A LOS PROBLEMAS DE LA INFANCIA

Participan en un taller sobre el Plan Estratégico Nacional de la Infancia y la Adolescencia. Destacaron la pobreza y la intolerancia como los problemas más acuciantes de la población infantil en el mundo

Fecha: 01/06/2010

Los niños y niñas de Alcalá de Guadaira, representados en el Consejo de la Infancia, han destacado la pobreza y la intolerancia como los problemas más acuciantes de la población infantil en el mundo. Ante estas y otras cuestiones relacionadas con situaciones de riesgo y exclusión social, los alcaláreños del futuro han aportado una batería de soluciones creativas como difundir más los derechos de la infancia, cubrir solidariamente sus necesidades más urgentes o crear una tarjeta que sirva para entrar en todas partes gratis.

Hasta 13 niños y niñas de 11 y 12 años, integrantes del Consejo de la Infancia alcaláreño, participaron recientemente en un taller de participación sobre el Plan Estratégico Nacional de la Infancia y Adolescencia (PENIA) gestionado por la Plataforma de Organizaciones de la Infancia. Mediante una dinámica de grupo, lluvia de ideas y la aplicación de la denominada tarjeta creativa, los escolares concluyeron que los principales problemas a los que se enfrentan los niños y niñas del mundo son la pobreza, la falta de respeto a los derechos de los demás, la intolerancia, la falta de atención a la infancia y la adolescencia, el racismo, la soledad, los problemas en el seno familiar y la falta de instalaciones deportivas.

Asimismo, los menores incorporan a la problemática relacionada con situaciones de riesgo de exclusión social el aislamiento, la falta de motivación hacia una vida sana, la discriminación social, la falta de atención y confianza en la infancia por parte de los adultos, problemas familiares, intolerancia, agresiones al medio ambiente, las enfermedades o la falta de seguridad en internet.

Ante este panorama, el Consejo de la Infancia ha convenido combatir la pobreza proporcionando material de abrigo y logística a las familias y personas que lo necesitan, ofrecer juguetes a los niños, asegurarse una alimentación sana y suficiente, realizar colectas entre los niños y niñas con más posibilidades, dar luz a los hogares que no la tengan y proporcionar una

NOTICIAS RELACIONADAS



1 Cope Alcalá 'Boxeo y Formas' Scholl Boys.
El evento contó con la participación de los chicos del Club Impacto, junto a deportistas de otros clubes provinciales, con exhibiciones a cargo de varios clubes de deportes de contacto de Alcalá.



La alcaldesa confía las Llavetas de la Ciudad a Sus Majestades los Reyes de Oriente



Más de 350 menores de Alcalá han participado en la XI Jornada por la Infancia

Más de 350 menores de Alcalá participarán en la XI Jornada por la Infancia

Cultura pone en marcha "Cuentaventura", un programa de cuentos, magia y música al aire libre para familias

[Ver más noticias](#)

GOGOETA:

Hil honetan, mintzatzean ahotsik ez dutenei buruz gogoeta egin dugu.

Testuan ikusiko dugunez, gu haientzako ahotsa izatea garrantzitsua da, beste batzuk agian guretzat izan diren bezala, noizbait. Kristau garen aldetik, Aitarengandik eta ingurukoen-gandik jasotzen dugun maitasuna itzultzeko deia daukagu. Horretarako, gertueneko inguru-nean hasi behar dugu: etxea, eskola, ikasgela... Leku horietan ahotsa emateko adibideren bat daukagu hurbil, seguru. Jarraian, horren gainean hausnartzeko galdera batzuk ditugu:

Zure inguruan, nork behar dute zu haien ahotsa izatea?

Nola izan zaitezke ahotsa zure ikasgelan?

Ahotsik ez daukazula sentitu duzu inoiz? Zergatik?

Zaugarritasun uneetan, nor izan dira ahotsa zuretzat?

Asteko konpromisoa:

4. ABENDUA: Irudikatu dezakezu... Jainkoa zugan jaiotzea?



Hileko motibazioa

Irudikatu dezakezu abendua ez izatea hotza eta argiak soilik, baizik eta erritmoa moteltzeko aukera bat?

Abendua hil bat baino gehiago da: atari bat da. Oraindik ezagutzen ez dugun zerbaitera zabaltzen den atea; gehiago egiteko ez baizik eta gehiago izateko eskatzen digun denbora bat.

Irudikatu dezakezu horrela biziko bagenu, prestaketa isil baten modura? Ez izatea opariak eta apainketa soilik, baizik eta topaketa baterako prestatzen diren bihotzak. Topaketarako. Abendualdian pizten dugun kandela oro hazten den itxaropen bat da, argi bihurtzen den itxaronaldia bat. Irudikatu dezakezu Norbaiten zain egotea benetan, ez soilik zerbaiten zain? Beharbada, zentzua hori bera da: zarata ez, xuxurla baizik. Lasterketan ez, bidean baizik.

Irudikatu dezakezu aurten desberdina izatea? Prestatu zeure burua benetan, begiak eta bihotza zabal-zabalik.

Diciembre 1/12:

Baliabideak:

EBANJELIOA: (Lk 1,26-38)

Handik sei hilabetera, Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemanan zegoen.

Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan zion: **«Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zurekin»**. Hitz hauek entzutean, ikaratu egin zen Maria eta agur horrek zer esan nahi ote zuen galdetzen zion bere buruari.

Aingeruak esan zion: «Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango.

Mariak esan zion aingeruari: «Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi?».

Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak ho-deiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Begira, Elisabet zure lehengusina ere haurdun gertatu da bere zaharrean eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik».

Orduan, esan zuen Mariak: **«Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekik zuk esan bezala»**. Eta aingeruak utzi egin zuen.

IRUDIA:



DEFINIZIOA:

"Abendualdia zera da... Lagun bat zure etxera iritsiko denean ordubeteren buruan, eta lo-gela prestatu behar duzu hari harrera egiteko. Modu berean, abendualdia bidea prestatzea da; horrela, Jesus iristen denean, bihotza prest daukagula egin ahal izango diogu harrera".

Asteko konpromisoa:

Asteko galdera gidaria

Asteko otoitza egiten duzun aldiro, hautatu galdera bakar bat zurekin eramateko astearen gainerakoan. Galdera hori lagungarria izango da, otoitzaren unea praktikoa eta esangurat-sua izateko.

Galderak honelakoak izan daitezke:

- Zer askatzeko beharra daukat aste honetan?
- Zer eskertu dezaket gaur?
- Norekin izan nahi dut pazienteagoa edo adeitsuagoa?
- Zer indar eskatu edo gogoratzeko beharra daukat?
- Zer gauza on egin dezaket, nahiz eta txikia izan?

Ez duzu zertan erantzun osoa izan une horretan bertan. Galdera astean zehar zurekin era-matea da kontua, eta benetako egoeretan inspira zaitzan uztea.

Diciembre 7/12:

Baliabideak:

MOTIBAZIOA:

Arretaz begiratzen dugunean, lehen ikusten ez genituen gauza ederrak deskubritzen di-tugu. Bizitzak une soilak baina oso garrantzitsuak oparitzen dizkigu: goizero esnatzea, familiakoak ikustea, irribarre egitea eta "egun on" esatea.

Mariak irakasten digu ez direla gauza handiak behar maitasuna frogatzeko. Besteen bi-hotza keinu txikiekin bete dezakegu: laguntzea, partekatzea, besarkatzea... Zer keinu polit bizi izan dituzu goizean, eskolara heldu baino lehen? Itxi begiak eta berritu itzazu...

ABESTIA:

<https://youtu.be/4HjDhF5Rxr0?list=RD4HjDhF5Rxr0>

ABENDUALDIRAKO DINAMIKA: Gaurko otoitzean kandela bat piztuko dugu, abendualdiko denbora liturgikoan ohi den bezala. Kandelaren ondoan, saski batean, astean zehar egiteko ekintzak egongo dira: eskerrak emate, barkamena eskatzea, norbaiti adi egotea... Irakasleak gerturatzeko gon-bit egingo die ikasleei, eta paper zati bat hartzeko ausaz, proposatu diren ekintzekin.

Asteko konpromisoa:

Egin lagun ikusezina ekintza onekin. Egon adi gelako norbaiti.



Abenduak 14:

Baliabideak:

MOTIBAZIOA:

Besteei ematea zerbitzatzeko modu ederra da. Bihotzarekin lagundu, partekatu edo entzuten dugunean, mundua pixka bat hobea egiten dugu. Ez dira gauza handiak behar: keinu adeitsu batek, irribarre batek edo esku lagunkoi batek norbaiten eguna alda dezake... baita gurea ere.

BIDEOA: "Zerbitzuaren poza"

<https://www.youtube.com/watch?v=WbfuzxOeDng>

PREGUNTAS:

- Zer ikusi duzu bideoan?
- Zer egingo zenuke egoera horietan?
- Zer egoeratan jokatzeko duzu horrela?
- Zer pertsona motarekin daukazu antzeko jarrera?

GOGOETA:

Eguneroko egoera ugaritan, ez gara besteen baldintzez ohartzen, eta oso egoistak gara haiekin batzuetan. Pentsatu zer pertsonarekin eta zer unek eragiten duten horrela jokatzeko.

ESALDIA: "BESTEEI EMATEN DIEGUNA GURE BIHOTZEAN GERATUKO DA BETI".



Asteko konpromisoa:

Begiratu zure eskuei isiltasunean. Pentsatu zenbat gauza egin ditzakezun eskuekin besteei laguntzeko: heldu, besarkatu, eskaini, altxatu, maileguz eman, partekatu, konpondu, batu... Egon adi ikaskideei, agian haietako norbaitek gure laguntza behar dutela senti baitezakegu, edo, besterik gabe, egunerokoak ez baititugu gogoan.

Abenduak 21:

Baliabideak:

ABESTIA: *Cuatro domingos de Adviento*

<https://www.youtube.com/watch?v=O4xj5KOk04o&t=10s>

Laugarren kandela abendualdiko laugarren igandean pizten da. Jainkoaren maitasuna sinbolizatzen du, eta Jesusen jaiotza irudikatzen.

ESALDIA: Non aurkituko dut Jesus Gabon hauetan?

GOGOETA

Martzelinok Mariari otoitz egiten zion une zailetan. Hark bezala, abendualdi honetan Mariarengana jo dezakegu guk ere, triste gauden edo zerbaitek kezkatzen gaituen uneetan.

Asteko konpromisoa:

Pentsatu gelako nori egin diozun keinu kaltegarri bat. Altxatu eta eman besarkada bat pertsona horri.





5. URTARRILA: Irudikatu dezakezu... besteentzako bakea izalea?

Hileko motibazioa

Hil honetan bakearen eguna ospatuko dugu. Eta, maristak garen aldetik, ezin dugu gure onena jartzeko aukera galdu, mundu hobea eta bidezkoagoa eraikitzeko. Gure mundua sufritzen ari da: gerrak, gosea, bidegabekeriak... Gure esku dago mundu baketsu bat eratze-ko aukera, hurkoa maitatzeko aukera, Jainkoak agindu zigun bezala. «Nik ezin dut gerra bat gelditu», pentsatuko duzu agian. Aitzitik, adiskide bati lagundu diezaiokezu, entzuten dakien ikaskidea izan zaitezke, edota anai-arreba ulerkorra, taldeko jokalaria ona, beharra duenarentzat hor dagoen norbait, edota gaizki-ulertu batean bitartekotza egiten duen norbait... Horrekin guztiarekin, besteek zugan bakea ikusiko dute. Lasaitasun eta bake uhar-teak izan gaitezke ingurukoentzat. Bakea zugan hasten delako.

Urtarrilak 7:

Baliabideak:

BIDEOA: Samariar onaren parabola, Valivan

https://www.youtube.com/watch?v=7_sArxpUQho&list=RD7_sArxpUQho&start_radio=1

EBANJELIOA: Samariar onaren parabola

Orduan, lege maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion:

—Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?

Jesusek esan zion:

—Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?

Hark erantzun:

—“Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz”.

“Eta lagun hurkoa zeure burua bezala”.

Jesusek erantzun zion: —Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu.

Baina lege maisuak, bere galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, galdetu zion Jesusi:

—Eta nor da nire lagun hurkoa?

Jesusek esan zion:

—Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan erori zen; zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Apaiz bat gertatu zen, hain zuzen, bide hartan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Gauza bera egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eramane eta bere ardurapean hartu zuen. Bi-haramunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zain ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorre-nean ordainduko dizut”. Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin?

Lege maisuak erantzun zion: —Hartaz errukitu zenak.

Jesusek esan zion, orduan: —Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste.



OTOITZA:

Jauna, Zure aurrean gaude, hemen, bakea ereiten irakats diezaguzun eskatzeko.
Zenbaitetan uste dugu erraldoia den zerbait egin behar dugula mundua aldatzeko.
Aitzitik, Zuk oroitarazten diguzu keinu txikiekin hasten dela dena, samariar onak egin zuen bezala.
Gaur, sufritzen duenaren aurrean gelditzen den bihotz bat edukitzeko eskatzen dizugu, ez ikusia egiten ez duena, laguntzera ausartzen dena.
Gure gelan, etxean eta lagunekin
bake ereile izan gaitezen gure hitzekin,
begiratzeko gure moduarekin, besteak tratatzeko moduarekin.

Asteko konpromisoa:

- Noiz izan zen eskatu gabe norbaiti lagundu nion azken aldia?
- Gaurko zer unetan izan naiteke samariar on?

Enero 11/01:

Baliabideak:

ABESTIA: Color Esperanza- Diego Torres

https://www.youtube.com/watch?v=NbIVOQRs-Vs&list=RDNbIVOQRs-Vs&start_radio=1

GOGOETA:

Kristau gisa, gure onena erein nahi dugu.
Batzen, entzuten eta bidean laguntzen duten pertsonak behar ditu munduak.
Keinu on bakoitzak ingurunea argiztatzen du.
Kristau izatea bakea, familia eta argia izatea da.

IRUDIA:



OTOITZA:

Jauna, lagundu iezaguzu egiazko kristau gisa bizitzen:
eskuzabal, adeitsu eta laguntzeko prest.
Jakin dezagula bakarrik edo triste sentitzen direnen ondoan egoten.
Gure baitan has dadila munduan ikusi nahi dugun bakea.
Amen.

Asteko konpromisoa:

Non erein dezaket bakea nire egunerokoan? Norekin izan nahi dut bake? Zure ingurune hur-
bileko nork behar du entzuna izan eta bidean laguntzea?

Enero 18/01:

Baliabideak:

IDEIA JASA:

- Zer esan nahi du bakean bizitzeak?
- Zer da bakea, gerrarik ez egotea ala zerbait gehiago?
- Zein dira bakearen kulturaren balio nagusiak (tolerantzia, justizia, enpatia)?
- Ikasle gisa, nola lagundu dezaket gizarte baketsuak eraikitzen?
- Zer ekintza zehatz egin ditzaket etxean edo auzoan, bakea sustatzeko?
- Zer egin dezaket, liskar bat edo indarkeriazko ekintza bat ikusten badut?
- Nola eraman daiteke bakea komunitatera eta eskolara?

BIDEOA: Bakerako eta indarkeriarik ezerako eskubidea:

<https://www.youtube.com/watch?v=6tNxNhPP8XQ>



OTOITZA:

Jauna, esaten diguzu bakea ez dela gerrarik ez egotea soilik,
baizik eta justizia, errespetua eta tratu ona.

Lagundu iezaguzu gogoan izaten
bakea zaurgarriei lotuta dagoela,
haur guztien eskubideei.

Eman iezaguzu bihotz ausart bat, bidezkoa dena defendatu nahi duena,
ahula zaindu nahi duena, gatazkak dauden lekuetan bitartekotza egin nahi duena.
Amen.

Asteko konpromisoa:

Gure ingurunetik (ikasgela, familia), nola eraiki ditzakegu bake egoera txikiak?

Adibidez, entzuten duen talde bat, adiskidetasun batzorde bat...

Zer ekintza zehatz egin dezakegu gaur, errespetua eta bizikidetzat sustatzeko?

Urtarrilak 25:

Baliabideak:

ABESTIA: *No dudaría* - Rosario Flores

https://www.youtube.com/watch?v=VhF3nRBRQdQ&list=RDVhF3nRBRQdQ&start_radio=1

GOGOETA:

Bakeari emandako hil honetan, gure bihotza ireki eta elkarrekin pentsatu nahi dugu.

Hona hemen abestiaren hitzak: "*Si pudiera olvidar aquel rencor...*", "*No dudaría en volver a reír*".

Gogorarazten digu ezen, batzuetan, haserrean, hitz txarren, eztabaiden edo min ematen duten keinuen zama daramagula.

Eta, atzean uzterik bagenu, mundua, gure mundua, politagoa izango litzatekeela.

Beharbada, guk ezin dugu gelditu beste herrialde bateko gerra bat, baina "gerra txikiak" saihestu ditzakegu ikasgelan, jolastokian edo etxean:

gaizki ez erantzutea erabakitzen dugunean,
barkatzea erabakitzen dugunean,
oihu egitea ez baizik eta hitz egitea nahiago dugunean,
errua egotzi beharrean irtenbideak bilatzen ditugunean,
denak errespetuz tratatzen ditugunean, nahiz eta desberdin pentsatu.

Abestiak hau ere esaten du: "*No dudaría en devolver a este mundo su justicia y su alegría*".

Eta hori bai, hori egin dezakegu:

gure hitzekin, eskuekin, besteei begiratzeko gure moduarekin.

Bakea ez delako herrialde batean hasten, ezta gobernu batean edo armada batean ere.

Bakea zugan hasten da.

Nola jokutzen duzun, arazo bat dagoenean.

Laguntzea ala ez nahastea erabakitzen duzun.

Batzen ala zatitzen duzun.

Eraikitzen ala suntsitzen duzun.

Gutako bakoitza bake sortzaile txiki bat izan daiteke.

Eta denok aritzen bagara horrela, mundua aldatu egiten da.

Benetan.



Asteko konpromisoa:

Gaurko konpromisoa da gatazka daukagun norbaiti barkamena eskatzea edo hura barkatzea.

Neuk egingo dut lehen urratsa, nahiz eta kostatu.

Bakea nigan has dadila eta besteei ere irits dakiela.



6. OTSAILA: Irudikatu dezakezu... eraldatzen duen maitasun bat?

Hileko motibazioa

Irudikatu dezakezu zure bizitza barrutik eraldatzen duen eta bihotzak irekitzeko gai den maitasun bat?

Inposatzen ez den maitasuna da, askatzen gaituena eta zentzua itzultzen diguna, pertsona bakoitzaren barnean berriz sinesteko gaitasuna berriro sortzea eragiten duen maitasuna. Sentimendu horrek gure baitatik irtetera bultzatzen gaitu, besteengana hurbiltzeko, eta barkamenaren indar bihurtzen da, adiskidetze energia eta bakearen hazi. Begiradak aldatu, konfiantza piztu eta senidetasuna eraikitzen du. Kristoren maitasun horrek itxaropenaren zeinu bizi izateko dei egiten digu, eguneroko keinuen bidez.

Otsailak 2:

Barkamenaren bidez eraldatzen duen maitasuna

Gaur, dena alda dezakeen zerbaiti buruz hitz egingo dugu: barkamena.

Barkatzen dugunean, Jesusen maitasunak gure bihotza eta besteena eraldatzea eragiten du.

Baliabideak:

IRUDIA:



EBANJELIOA: Mateo 18: 21-22

"Orduan, hurbildu zitzaion Petri Jesusi eta galdetu zion: Jauna, senide batek bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz? Jesusek erantzun zion: Zazpi aldiz ez, zazpi milatan zazpi aldiz".

BIDEOA: I forgive you

Ikusiko dugun bideo bizidunean, ahizpa nagusia gorroto duen ahizpa txikiaren istorioa kontatzen da. Itxura batean kaltegabea den eguneroko batean islatzen du, eta, azkenean, dena datorkio kontra. Nola amaituko da istorioa? Zer harreman dauka Mateoren ebanjelioarekin?

<https://youtu.be/2c9dsAu7jVc>.

GOGOETA:

Bideoan ikusi dugu barkatzeak aske izaten eta bakean bizitzen laguntzen digula. Zenbaite-tan, gorrotatzea hariz beteriko motxila astun bat eramatea bezalakoa da. Barkatzen dugunean, aldiz, motxila arinagoa da eta bihotza argiz betetzen zaigu.

Irudikatu zure bihotza lorategi bat dela. Barkatzen dugunean, belar txarrak kentzen dituzu eta lore politak hazteko espazioa uzten duzu. Beti ez da erraza barkatzea; hala ere, indart-suago eta zoriontsuago egiten gaitu.

Asteko konpromisoa:

Ongi jokatu ez dugun familiako norbaiti barkamena eskatzen saiatuko gara. Eta etxean at-seginagoak eta errespetutsuagoak izateko ahalegina egingo dugu.

Ebaki paperezko bihotz bat, eta idatzi barkamena eskatu nahi diozuen edo barkatu nahi du-zuen norbaiten izena. Apaindu dezakezue, eta, halaber, barkamenak Jesus eta besteok hein handiagoan batzen gaituela gogoan izateko oroigarri gisa gorde dezakezue.

Otsailak 8:

Irudikatu dezakezu Jesus chef gisa? Hausterre Eguna ospatzen dugun eta Garizuma hasi-ko den aste honetan, Jesusi "zure bizitza kozinatzen" utziko diogu. Denbora liturgiko hau sakontasunez bizitzeko behar diren osagaiak oparitzen joango da, gure bizitzari zapore handiagoa emateko.

Baliabideak:

EBANJELIOA: Mateo 6, 1-6-16

Ez egin gero zeuen erlijio betebeharrak jendaurrean, jendeak ikus zaitzaten; horrela, ez du-zue saririk jasoko zeruko zeuen Aitarengandik. Zuk limosna egitean, ez beza jakin zure ezke-rrak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da, eta ezkutukoa ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek be-zala: gogoko dute sinagoga eta plazetan zutik otoitz egitea, jendearen agerian. Benetan diotsuet: hartua dute beren ordaina. Barau egitean, ez zaitezte ager kopetilun, itxurazaleek ohi duten bezala: aurpegia itsusten dute, barau egiten dutela jendeari azaltzeko. Benetan diotsuet: hartua dute beren ordaina.

MOTIBAZIOA:

Jesusek proposatzen digu hiru osagai dituen saltsa batekin ontzea bizitza. Hauek dira: BA-RAUA - LIMOSNA - OTOITZA. Apaltasunez eta koherentziaz zerbitzatzen den saltsa bat da, eta gozoago egingo digu Garizuma.

IRUDIA:



ABESTIA: Receta cuaresmal – Fano eta Unai Quirós

https://www.youtube.com/watch?v=p7PZ_saWUIE

COLOREAR: Esteka honetan, Garizumako igande guztiak dituen kartel bat deskargatu de-zakezu, koloreztatu, ebaki eta osatzen joateko.

<https://drive.google.com/drive/folders/IsuMZ8BweFyZvtMVVdZOrZKpmttkch6a>

Asteko konpromisoa:

Otsailak 15:

Baliabideak:

IPIUNA: Maitasuna hazten zen basoa

Denak arrunt zirudien baso batean, ohiz kanpoko zerbait zegoen: **maitasun ekintzek argi-zko zuhaitzak haztea eragin zezaketen.**

Luno, untxi gazte bat, ikusezin sentitzen zen. Denei zirrara sorrarazten saiatzen zen, baina inor ez zen ohartzen, antza. Egun batean, jakintsu eta barea zen Tortu amonak hau esan zion:

—Luno, **egiazko maitasunak ez du txalorik nahi. Pazientziaz, ontasunez eta egiaz** frogatzen da. Saiatu: ikusiko duzu zer gertatzen den.

Lunok proba egitea erabaki zuen. Txoritxo bati lagundu zion eskerrak ematea espero gabe; ibaian zeukan lekua beste bati eman zion; egia esan zuen akats bat egin zuenean; eta traba egin ziona barkatu zuen.

Gau horretan, **zuhaitz dirdaitsu bat** agertu zen haren ondoan, Luno zur eta lur utzita. Tortu amonak hau azaldu zion:

—Ematen duzun maitasuna beti hazten da, nahiz eta txikia dirudien. Beste batzuegatik egiten duzunak zu eraldatzen zaitu... eta inguruko mundua eraldatzen du.

Orduz geroztik, Lunok soila baina sakona den zerbait ulertu zuen: maitasuna ez da zarata, inpaktua baizik.

ABESTIA: *Te esperaré toda la vida*, Dani Fernández

<https://www.youtube.com/watch?v=nUCuBrdEbUw>

IRUDIAK:



Asteko konpromisoa:

Ikaskide baten izena pentsatu eta paper zatitxo batean edo post-it batean idatziko dugu, maitasun keinu bat egiteko hari. Jolasgaraian edo goizean zehar eman diezaiokezu.

Otsailak 22:

Baliabideak:

Garizuma lurrean hazi bat ereiten dugunean bezalakoa da. Hasieran, txikia ematen du, ia ikusezina... Barruan bizitza handia dauka, ordea.

Gure keinu on bakoitza —partekatzea, laguntzea, barkatzea, otoitz egitea— bihotzean ereiten dugun hazitxo bat da. Agian ez dugu aldaketa berehala ikusiko. Dena den, hazia pixkanaka hozituko da, pazientziaz eta maitasunez.

Garizumak haziak zaintzera gonbidatzen gaitu: isiltasunez, ahaleginez, eskuzabaltasunez. Eta Pazkoa iristean, maitasunez ereiten duguna... alaitasunez loratzen dela deskubritzen dugu. Erein dezagun ongi handia egun hauetan, gure bihotzean bizitza berria sortzeko.

OTOITZA: "Eguneko hazia"

Gaur, hazi magikoa daukat eskuetan.

Irribarreekin ureztatzen badut, alaitasuna haziko da.

Keinu onekin zaintzen badut, adiskidetasuna haziko da.

Eta ahaleginarekin babesten badut, erraldoia izango da.

Egon zaitez gaur nire alboan, nire hazia gauza onez beteriko zuhaitz bihur dadin.

Eguna haztea eragin dezagun!

Amen.

GOGOETA:

Denok erein ditzakegu haziak egunerokoan egiten ditugun ekintza onekin; esate baterako, "egun on" esatea edo behar duen norbaiti laguntzea.

Horregatik, gogoeta elkarrekin egingo dugu orain, hau pentsatzeko:


- Zer hazi erein nahi duzu gaur?
- Norekin erein nahiko zenuke?

ABESTIA: *Semillas* (Haziak)

https://www.youtube.com/watch?v=GP83LJfgbiw&list=RDGP83LJfgbiw&start_radio=1

Asteko konpromisoa:

Gogoeta egingo dugu minutu batzuk, eta gero partekatu egingo dugu. Hartara, erein nahi duguna ozenki esango dugu, irakasleak emango digun paperezko bolatxo bat hartuko dugu (hazia irudikatzen du), eta hazia harekin erein nahi dugun haurrari emango diogu. Benetako haziak ekar daitezke...



7. MARTXOA: Irudikatu dezakezu... berriz haslea?

Hileko motibazioa

Aizu! Ez da ezer gertatzen... HUTSETIK HAS ZAITEZKE!

Beti dugu aukera hori, hasten den egun bakoitzarekin, eta bereziki martxoan, Garizuman zehar aurrera egiten jarraitzen dugu eta. Garai honek berriz hasiera gonbidatzen gaitu; gelditzerazera, gure baitan begiratzera, borragoma bat hartu eta astun gertatzen zaigun guztia eza-batzera. Garizuma bihotzerako entrenamendua da, eta hartan zehar aldatzen ikas dezakegu, guztiz ondo atera ez zena ezabatu eta indar handiagoz altxatu. Jainkoak beti ematen digu —eta emango digu— berriz hasteko behar den itxaropena. Zamak askatzeko gauza bazara eta egun bakoitza hobea izan daitekeen konfiantza baduzu... berriz hasi zara jada. ALTXATU!

Martxoak 1:

Hutsetik haslea gauzak hobeto egiteko beste aukera bat edukitzea da. Kontua ez da gertatu zena ahaztea, ikastea baizik, indartsuagoa izateko. Gaur, gaizki sentiarazten nauena atzean utzi eta gauza onei lekua egin nahi diet. Bizitzen dudan guztiak hobetzen laguntzen dit. Hasiera berri hau aurrera egiten jarraitzeko aukera bat da, lasaia, energia handiagorekin eta egunez egun dena hobeto joan daitekeen ideiarekin.

Baliabideak:

DINAMIKA: "Motxila ikusezina"

1. Ikasleek begiak itxiko dituzte 20 segundoz.
2. "Gauza astunak" dituen motxila bat daramatela irudikatuko dute. Adibidez:
 - haserrealdi bat
 - akats bat
 - kezka bat
 - keinu txar bat
3. Bakoitzak pentsatuko du zer atera nahi duen gaur motxila horretatik.
4. Atzean utzi nahi dutena paper zatitxo batean idatziko dute.
5. Tolestu eta gorde egingo dute, edo hasiera berrien kutxan utziko.

EBANJELIOA: Gaur, Seme iriolea deritzon Jesusen parabola gogoratuko dugu.

"Huts handia egin duen gazte baten historia da. Familiakoengandik urrundu eta gero damutu egiten zaio. Etxera itzultzen denean, aita ez dio errieta egiten. Horren orde, pozez besarkatzen du.

Jesusek irakatsi nahi digu beti itzuli, aldatu eta berriz has gaitezkeela. Ez du axola zenbat bider erratzen dugun, Jainkoak beti zabaltzen digulako atea.

PARABOLAREN BIDEOA IKUSTEKO ESTEKA:

https://www.youtube.com/watch?v=eGhr-xS4FkM&list=RDeGhr-xS4FkM&start_radio=1

EKINTZA:

1. Jarri eroso eta gurutzatu besoak bularrean, zeure burua besarkatuko bazenu bezala.
2. Pentsatu seme iriolearen istorioan: gogoratu semeak huts egin zuela eta aldendu egin zela, baina aita maitasunez beteriko besarkada handi batekin egin zion harrera.
3. Zeure burua besarkatzen duzun bitartean, ekarri gogora ondo egin ez duzun zerbait, eta irudikatu Jainkoak ere horrela besarkatzen zaituela.
4. Geratu horrela segundo batzuk, ematen dizkizun besarkada eta barkamena sentitzen. Lagungarria baldin bazaizu, itxi begiak, nahi baduzu.

OTOITZA:

"Jauna, gaur berriro hasi nahi dugu.
Lagundu iezaguzu atsekabetzen gaituena atzean uzten
eta hutsetik hasten bihotz garbi batekin.
Irakats iezaguzu hobeak izaten,
gure okerretatik ikasten,
egunero pozez eta itxaropenez ibiltzen.
Egon gure alboan hasiera berri honetan.
Gidatu gaitzazu beti ongiaren bidetik.
Amen".

Asteko konpromisoa:

Aste honetan, zerbait ondo ateratzen ez zaidanean, jarrera positiboarekin berriro hasten saiatuko naiz.

Martxoak 8:

Zenbaitetan uste dugu une handi bat behar dugula zerbait aldatzeko. Egiaz, urrats txiki bat besterik ez da behar. Azken boladan atzeratzen ari naizen urratsa egiteko egun ona da gaur. Keinu txiki batek nire eguna eralda dezake.

Baliabideak:

DINAMIKA: "Urrats txikia"

1. Ikasle bakoitzak paper zati txiki bat jasoko du.
2. Idatzi esaldi labur bat SOILIK:
"Mi pequeño paso de hoy será..."
3. Agendan, estutxean edo mahaian gordeko dute.
4. Egunean zehar ikusten duten bakoitzean, keinu txiki hori gogoratu behar dute.

Hautazkoa:

Taldearen horma irudia egitea: "Urrats txikiak, aldaketa handiak".

IRUDIA:



OTOITZA:

"Jauna, eskerrik asko egun berri honengatik.
Lagundu iezaguzu egunari probetxu ateratzen,
ni haztea eragiten duena hautatzen
eta keinu bakoitzean bihotza jartzen.
Egin dezadala gaur urrats txiki bat ona den zerbaitearantz.
Amen".

Asteko konpromisoa:

Aste honetan, urrats txiki bat egingo dut egunero, nire zerbait hobetzeko: ikasgelan, etxean edo ikaskideekin. Nahiz eta txikia izan, gogotsu egingo dut.

Martxoak 15:

Aste honetan, hobetu nahi dezakegun zerbait pentsatu nahi dugu. Ez da aldaketa handirik egin behar: keinu bat, jarrera bat edo ahalegin txiki bat aski da. Garizumak oroitarazten digu zertxobait hobeak izan gaitezkeela egunez egun. Aste honetan, gu haztea eragiten duen zerbait aldatzeko urrats bat egingo dugu.

Baliabideak:

JOLASA:

Aste Santua hurbiltzen ari da. Prest egon behar dugu, aldi liturgiko hori oso garrantzitsua baita kristauontzat. Aldi horretan zehar, Jesusek Lurrean igarotako azken egunak gogoratzen ditugu, baita haren heriotza eta piztuera ere. Jesusek egindako urrats bakoitza zurekiko maitasunagatik egin zuen. Jolas honen bitartez, egun hauetan ospatu eta gogoratzen ditugun une batzuk gogorarazteari ekingo diogu. Eskua altxatu dezakegu parte hartzeko, edota taldetan/errenkadatan parte hartu.

<https://wordwall.net/es/resource/56155481/semana-santa>

ABESTIA: *Es tiempo de cambiar* – Juanes

<https://www.youtube.com/watch?v=OqmluAWTir8>

GALDERAK:

- Zer esan nahi du zuretzat "aldatzeko garaia da" esaldiak?
- Sentitzen duzunari erreparatuta, zer eskatzen dizu Jainkoak aldatzeko aste honetan?

DINAMIKA: "Mi propósito del día"

1. Ikasle bakoitzak paper zatitxo bat jasoko du.
2. GAUR aldatu nahi duten zerbait zehatzari buruz pentsatuko dute segundo batzuk:
 - ordenatuagoa izatea
 - errespetu handiagoz hitz egitea
 - etxean gehiago laguntzea
 - ikasgelan arreta jartzea
 - besteekin ez konparatzea
 - pazientzia handiagoa izatea
 - haserrea kontrolatzea

3. Esaldi labur batean idatziko dute:

"Gaur hau aldatu nahi dut: ...".

4. Papera agendan edo estutxean gordeko dute, egunean zehar gogoratzeko.
5. Egunaren amaieran, lortu baldin badute, marratu dezakete, eta bihar beste bat idatzi. Keinu txikia da, baina aldaketaren gaineko kontzientzia hartzen laguntzen du.

OTOITZA:

"Jauna, gaur entzun nahi dizugu.

On egiten ez diguna aldatzen ikasi nahi dugu,
eta gu haztea eragin dezakeen hori hobetzen.

Egon gure alboan, aldaketaren bide honetan.

Eman iezaguzu eraldatu behar dugunaz jabetzeko ausardia
eta pixkanaka eta beldurrik gabe hasteko indarra.

Jakin dezagula hobeak egiten gaituena hautatzen,
eta gure keinu bakoitzak ontasuna eta itxaropena eraman ditzala.

Lagundu iezaguzu barrutik aldatzen,

gure hitzak, gure keinuak eta gure jarrerak ere
alda daitezen.

Eskerrik asko berriro hasteko aukera emateagatik.

Amen.

Asteko konpromisoa:

Aste honetan, txikia baina adierazgarria den aldaketatxo bat landuko dut: hobe izaten lagunduko didan jarrera bat, keinu bat edo ohitura bat.



Martxoak 22:

Zenbaitetan, denbora luzea igarotzen dugu jada gertatu denari buruz pentsatzen edo oraindik iritsi ez denagatik kezkatuta. Eta, bitartean, garrantzitsuena ahazten zaigu: **oraina**.

Baliabideak:

MOTIBAZIOA:

Gaurko otoitzean, iraganari eta etorkizunari gehiago ez begiratzen saiatuko gara: arreta orainean jarriko dugu. Inguruan zer dagoen ikusi, pertsona entzun eta gure bihotza zaindu, gure hitzek eta keinuek dirdira egin dezaten gaur.

GALDERAK:

- Nor egin nahi ditut gaur zoriontsu?
- Zer keinu egin ditzaket?

DINAMIKA: "Oraingo hiru gauza"

Ikasle bakoitzak pentsatu eta partekatuko du (ozenki edo koadernoan):

1. Gaur zaindu nahi duen pertsona bat.
2. Norbaitengatik egin dezakeen ekintza zehatz bat.
3. Egunean zehar lasaiago egoteko keinu bat.

Adibideak:

- ikaskide bati laguntzea,
- leunago hitz egitea,
- ikasgelan arreta jartzea,
- haserretu aurretik arnasa hartzea...

IRUDIA:



"Otoitza amaitzeko, gaur lasai sentitu nahi dugu, gauzak maitasunez egin eta arreta jarri nork bere buruari eta besteei. Denok izan dezagula egun polita, ohartu gabe irribarre egin-arazten dizuten horietako bat".

Asteko konpromisoa:

Aste honetan, orainean adiago bizitzen ahaleginduko naiz: hobeto entzungo dut, lasaitasunez jokatuco dut eta keinu polit bat bilatuko dut, norbaiti egunero oparitzeko.

Martxoak 29:

JESUS BIZIRIK DAGO! BERPIZTU DA! «Hilobian aingeru bat zegoen, eta esan zien: "Ez beldurtu. Jesus berpiztu da"». **Jesusen Piztuera ospatzeko moduko arrazoi bat da:** Jesusek heriotza gainditu zuen bera Jainkoa delako.

Baliabideak:

BIDEOA: Jesusen Piztuera: Hilobi hutsa, Joan 20

<https://www.youtube.com/watch?v=RbR-1dfBqKo>

MOTIBAZIOA:

Garizuman, hobetu ditzakegun gauzei buruz gogoeta egitera gonbit egiten digute, hots, gure hazieran aurrera egitea eragozten diguten gauzei buruz. Gure baitan begiratzen joan gara; aldatu nahi ditugun gauzak deskubritu ditugu. Gaur, oso garrantzitsua den zerbait gogoratu nahi dugu: aldaketa horri ekiteko aukera berria da egun bakoitza.

ABESTIA: *Mi primer día – Los Aslándticos*

https://www.youtube.com/watch?v=RiW6y-IOsuM&list=RDRiW6y-IOsuM&start_radio=1

GALDERAK:

- Zer aldaketa egin nahi duzu gaur?
- Zerk eragozten dit urrats hori egitea?
- Zer egin dezaket, egun hau "nire lehen eguna" izan dadin benetan?
- Zure bizitzan, non nabari da Jesus zugar bizi delako Berri Ona?

DINAMIKA: "Nire lehen urratsa"

1. Abestiarekin jarraitzeko —aste honetan gurekin egongo baita—, ikasle bakoitzak egin nahi duen aldaketa pertsonal bat pentsatuko du:

- besteei hobeto hitz egitea
- ikasgai batean gehiago ahalegintzea
- ohitura txar bat kontrolatzea
- adeitsuagoa izatea
- etxean gehiago laguntzea

2. Paper zati batean, honela hasten den esaldi bat idatziko dute:

"Gaur hau egiteko nire lehen eguna izango da: ...".

3. Paper zati hori gorde dezakete, edo "Hasiera berriak" kutxan utzi, ikasgelan.

OTOITZA:

"Jauna, gaur nire lehen eguna izatea nahi dut.

Nire lehen eguna, aldatzeko,

pixka bat gehiago ahalegintzeko,

nire hitzak zaintzeko,

besteei laguntzeko

eta izan nahi dudan pertsonaren antz handiagoa izateko.

Eskerrik asko aukera berri hau oparitzeagatik,

nire ondoan beti egoteagatik

eta nigan konfiantza izateagatik, baita nik zalantza egiten dudanean ere.

Gaur zerbait ona has dadila nire bihotzean.

Amen".

Asteko konpromisoa:

Aste honetan, azken boladan egin nahi izan dudan aldaketa bati ekingo diot. Gaur nire lehen urratsa egingo dut, eta erabakitasunez eta itxaropenez jarraituko dut.



8. APIRILA: Irudikatu dezakezu... dena konektatuta dagoela?

Hileko motibazioa

Apirilean, udaberria ospatzen dugu, natura lorez, kolorez eta bizitzaz blai esnatzen den unea. Era berean gogoratu behar dugu denon etxeak, Lurrak, zaintzea behar duela. Landare oro, animalia oro, pertsona oro... Denok gara familia handi honen partaide. Ura, airea eta lurzorua babesten ditugunean, nork bere burua ere zaintzen dugu. Zeren dena bat baita, eta keinu txikiena ere garrantzitsua da: argi bat itzaltzea, hazi bat landatzea, zaborra ez botatzea... Halaxe eraikiko dugu elkarrekin mundu alaiagoa, osasuntsuagoa eta bizitzaz betea!

Apirilak 1:

Baliabideak:

ABESTIA: Madre tierra, Chayanne

https://www.youtube.com/watch?v=qzWpJ_IDcgU&list=RDqzWpJ_IDcgU&start_radio=1

Madre tierra abestian, Chayannek **planetaren, bizitzaren, gure sustraian eta espirituala-sunaren** metafora bat egiten du. Halaber, gogoeta egitera, zoritxarrak gainditzera eta soila denari balioa ematera gonbidatzen gaitu. Hala, antzinako gure tradizioekin eta bizitzari berari diogun maitasunarekin konektatuko gara, zailtasunak badaude ere, eta altxatzeko ahalmena dugula gogoratuko dugu.

BIDEOA: Nola zaindu ingurumena? 10 aholku

<https://www.youtube.com/watch?v=nvUqnpicSd0>

ESALDIA:

Kreazioa zaintzea, Jainkoaren opari den aldetik.

Lurra partekatu eta zaintzearen garrantzia.

OTOITZA: "LAUDATO SI" (Frantzisko aita santua)

Jainko maitea:

Eskerrik asko Ama lurragatik, zure oparia baita.

Eskerrik asko arnasten dugun aireagatik, berotzen gaituen Eguzkiagatik eta landareak ureztatzen dituen euriagatik.

Eskerrik asko animaliengatik, zuhaitzengatik, itsasoengatik eta ematen dizkiguzun gauza eder guztiengatik.

Asteko konpromisoa:

Urratsak egingo ditugu...

Aukeratu bideoko jarraibide edo aholkuetako bat (edo partekatu ikasi dituzun beste batzuk), eta hartu ezazu astean zehar egiteko konpromisoa. Konpromiso bera hartu dezakezue ikaskide guztiek; esate baterako, orrien bi aldeak erabiliko ditugu, ikasgelako birziklapen zakarrontzia sortuko dugu, argiak piztuta ez geratzea zainduko dugu, etab.

Apirilak 5:

Baliabideak:

BIDEOA: Ereilearen parabola - Valivan

https://www.youtube.com/watch?v=9E5oPlaZOx0&list=RD9E5oPlaZOx0&start_radio=1

GOGOETA:

- Zure iritziz, nor da ereilea parabola honetan?
- Zer ereiten duzu zure inguruan?
- Zer ereiten duzu zure baitan? Zer ikusten duzu loratzen? (Ahalegina, eskuzabaltasuna, maitasuna, barkamena, ausardia, adiskidetasuna, ilusioa, itxaropena...).
- Zer belar txar kendu nahiko zenituzke? (Egoismoa, etsipena, gorrotoa, herra, kexak, kritikak...).

IRUDIA:



ABESTIA: Natura zaintzeko rapa

<https://www.youtube.com/watch?v=ZJjks48czVw>

Asteko konpromisoa:

Zaindu maitasunez zure baitan ereiten duzuna. Jainkoak haziak oparitu dizkizu: zer egingo duzu hazi horiekin?


Abril 12/04:

Baliabideak:

ABESTIA: *Deja huella*, Inazio

https://www.youtube.com/watch?v=mKKiSyA4Py0&list=RDmKKiSyA4Py0&start_radio=1

IRUDIA:



GOGOETA:

- Zer arrasto uzten dituzu besteengan?
- Zer arrasto utzi nahiko zenuke hemendik aurrera?

DINAMIKA:

Hartu errotuladore bat estutxetik. Margotu hatz erakuslea eta utzi arrastoa agendan. Ondoan, idatzi zerbait: hitz bat, balio bat, keinu bat, ingurukoen artean kutsatu nahiko zenukeen zerbait, zure ustez munduak behar duen eta egiteko eskatzen dizun zerbait. Animo! Arrasto guztiak dira beharrezko eta polit. 😊

BIDEOA: Bakarrik hazten den haziaren parabola – Valivan

<https://www.youtube.com/watch?v=BS9pGbSWUe4>

Asteko konpromisoa:**Apirilak 19:**

Apirilaren 22a **Ama Lurraren Nazioarteko Eguna** da. NBEk finkatu zuen data hori, ingurumena babestu, jasagarritasuna sustatu eta planetaren zaintzan dugun erantzukizuna gogoratzeko beharraz kontzientziazteko asmoz.

Baliabideak:**BISUALIZAZIOA:**

Ingurura begiratzean gauza asko ikusten ditugu. Jainkoak sortu zituen guztiak.

Hasieran, dena nahasita zegoen, kaos handi bat zen. Aitzitik, Jainkoak esan zuen: **“Iluntasunean ezin da ikusi, izan bedi argia!”**. Eta, bat-batean, dena argiztatu zen eta eguna eta gaua agertu ziren. Hurrengo egunean, Jainkoak zerua sortu zuen, dena estaltzen zuen sabai handi baten modura. Gero, egun bat eman zuen ura eta lurra bereizten, eta kontinenteak sortu zituen hartara. Lurra pixka bat itsusia zen oraindik, ordea, dena marroia eta harrizkoa. Horregatik, lurraren zati handi bat landareen eta fruituz betetako zuhaitzen mantu batekin estali zuen. Hurrengo egunean, Jainkoak erloju erraldoi bat sortu zuen zeruan. Eguzkiak eguna adieraziko zuen, eta Ilargiak, gaua. Beste egun bat igaro zen, eta Jainkoak arrainez, askotariko animaliaz eta izaki bizidunetz bete zuen itsasoa. Eta zerua hegaztiz bete zuen. Beste egun bat pasatu zen, eta Jainkoak ezein animalia motaz bete zuen lurra, irudikatu ditzakegun guztiez: lehoiak, elefanteak, otsoak, intsektuak eta narrastiak.

Jainkoa oso pozik irudikatzen dut, egun horietan sortutako guztiarekin. Irribarretsu ikusten dut. Zertxobait nekatuta, hainbeste lan egin ostean, baina pozarren, dena hain ongi gelditu zitzaiolako.

Dena den, kreazioa osatzea falta zitzaion, eta garrantzitsuenaz azken egunerako utzi zuen. Hauxe esan zuen: **“Nire antz handia duen norbait sortuko dut, nire irudira”**. Eta halaxe sortu zituen gizakiak, gizonak eta emakumeak, eta kreazio handia zaintzeko agindu zien, hau esan bitartean: **“Sortu itzazue umeak eta ugaltu, bete lurra eta zaindu ezazue. Animaliaz betetako mundua ematen dizuet, eta lurrak sobera elikagai ekoizten ditu kreazioak mundu ona izaten jarraitzeko”**. Eta lan hori guztia eginda, Jainkoak atsedean hartu zuen.

GOGOETA:

Pentsatu bukaeran esaten duena: **“ZAINDU LURRA, KREAZIOAK MUNDU ONA IZATEN JARRAITZEKO”**.

Hori da Jainkoak gaur oparitzen didan irakaspena.

Munduaren bizi garen Etxea da, eta denoi gustatzen zaigu ongi zaindutako etxe batean bizitzea.

ABESTIA: *Cuídala*, Migueli

https://www.youtube.com/watch?v=yMjSHnMFBRs&list=RDyMjSHnMFBRs&start_radio=1

IRUDIA:



Asteko konpromisoa:

Apirilak 26:

Baliabideak:

ABESTIA: *Hermana Tierra*, Laura Pausini

https://www.youtube.com/watch?v=-BwNgO1tSx4&list=RD-BwNgO1tSx4&start_radio=1

PARTEKATZEKO UNEA:

- Bideoko zein irudi gertatu zaizu deigarriena?
- Kontziente zinen planetan gertatzen den guztiaz?

ESALDIA:

“PLANETA BAKARRA DAUKAGU, ETA HURA BABESTE GURE BAITAN DAGO”.

OTOITZA:

Jainko ahalguztiduna,
unibertso osoan zaudena beti,
eta izakietako txikienean;
Zu, dagoen guztia zure samurtasunarekin inguratzen duena,
isuri gudan zure maitasunaren indarra
bizitza eta edertasuna zaindu ditzagun.
Bete gaitzazu bakez, anai-arreba gisa
bizi gaitezen, inori kalte egin gabe.
Izaki txiroen Jainkoa,
lagundu iezaguzu lur honetako abandonatuak eta ahaztuak,
zure irudiko hainbeste balio dutenak, erreskatatzen.
Sendatu gure bizitzak, mundua babestu dezagun
eta ez gaitezen harrapariak izan,

edertasuna erein dezagun,
eta ez kutsadura eta hondamena.
Ukitu itzazu txiroen eta lurraren kontura
etekinak soilik nahi dituztenen bihotzak.
Irakats iezaguzu gauza bakoitzaren balioa deskubritzen,
mirespenez begiesten,
zure argi amaigaberanzko bidean izaki guztiekin
sakon bat eginda gaudela ohartzen.
Eskerrik asko, egunero hor egoteagatik.
Mesedez, eman iezaguzu adore, justiziaren,
maitasunaren eta bakearen aldeko borrokan.

Frantzisko aita santua, "Laudato si", 2015

Asteko konpromisoa:

Lurra zaintzea, pertsona maiteak zaindu bezala. Inguruan dagoen bizitza babestea.



9. MAIATZA: Irudikatu dezakezu... inspirazioa izatea?

Hileko motibazioa

Inoiz gertatu zaizu norbait ikusi eta pentsatu izana «hara, haren antza eduki nahi nuke»?

Bada, hori da Maria, gure Ama Ona, haren apaltasunarekin guretzako eredu dena egunez egun. Zerbitzuari emandako bizitza eta Jainkoaren Ama izateari BAI esan izana izan daitezela guztiontzako inspirazio, marista gisa, beti eduki dezagun txerazko hitz bat, irribarre bat, eta kalitate oneko eta entzuteko uneak ingurukoekin. Haren antz pixka bat edukitzeak ongi sentiaraziko gaitu norbere buruarekin, seguru, eta besteei zertxobait hobeak izateko ahalegina eragingo die.

Maiatzak 3:

Besteen zer bertute gauzatu nahiko genituzke maiatzean?

Hil honetan, Mariari begiratuko diogu, Ama Onari. Pertsona apala zen bera, besteak zaindu, entzun eta haiei adi egoten zena. Jendea maitasunez tratatzeko eredu polita izan zen. Mariari buruz hitz egin aurretik, une batez pentsatuko dugu:

- Zerk eragiten du eredu ona izatea?
- Zer gauza on ditu inspiratzen zaituen pertsona horrek?
- Zer ikasi nahiko zenuke harengandik?

Aste honetan, ingurura begiratu nahi dugu —ikasgelan, jolastokian, lagunekin—, eta gauza onak egiten dituzten eta hobeak izateko motibatzen gaituzten pertsonak deskubritu. Zeren, ontasun keinuak, laguntzeko gogoia edo jarrera politak ikusten ditugunean... imitatze gogoia sartzen baitzaigu!

Baliabideak:

EBANJELIOA: Joan 13, 14-15

«Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zien: "Ulertzen duzue egin dizuedana? Zuek Maisu eta Jauna deitzen didazue, eta arrazoi duzue, halaxe bainaiz. Beraz, nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere garbitu oinak elkarri. Ikasbide eman dizuet, zuek ere, nik zuekin bezalaxe, joka dezazuen"».

GOGOETA:

Denok daukagu nolakoa den asko gustatzen zaigun norbait: beti laguntzen duen ikaskide bat, bere gauzak partekatzen dituen lagun bat, edo beti irribarretsu dagoen norbait. Gauza on horiek ikustean, hau pentsatzen dugu: Horrelakoa izan nahi nuke!

Hil honetan, Mariari begiratuko diogu, gure Ama Onari. Pertsona apala zen bera, besteak zaindu, entzun eta haiei adi egoten zena. Maite ditugunak nola zaindu behar ditugun jakiteko oso eredu ona izan zen.

GELDITU, PENTSATZEKO:

- Zerk eragiten du eredu ona izatea?
- Zer gauza on ditu hobeak izateko inspiratzen zaituen pertsona horrek?

BIDEOA: Mesedeen kate amaigabea

<https://youtu.be/fJkWfHUaHTw?si=dnnQqCEf7TsIZCWw>

Ikusi dugun bideoan...

- Zer keinu ikusi dituzue, zuek ere egin nahiko zenituzketenak?
- Ekintza horietako baten bat imitatze saioa egin zenezakete?

Aste honetan, ingurura begiratu nahi dugu —ikasgelan, jolastokian, lagunekin—, eta gauza onak egiten dituzten eta hobeak izateko motibatzen gaituzten pertsonak deskubritu. Aste honetan, ontasun keinuak, laguntzeko gogoak, jarrera politak... deskubrituko ditugu, gero imitatu ahal izateko!

Asteko konpromisoa:

Aste honetan, bilatu inspiratzen zaituen norbait (ikaskide bat, irakasle bat, familiako norbait...), eta esan zergatik iruditzen zaizun eredu bat. Guk ere zerbait ona egingo dugu: keinu adeitsu bat, adore emateko hitz bat, poza kutsatzen duen irribarre bat... Izan zeu zaren bezalakoa, eta egon besteei adi".

Maiatzak 10:

Gure hiru bioletetako bat **SOILTASUNA** da: Mariaren antz handiagoa izaten irakasten digu.

Baliabideak:

MOTIBAZIOA:

Zer da soiltasuna zuretzat? Zer egin dezakegu soilagoak izateko?

Soilak izateko, ez da harrokeriaz ibili behar. Esate baterako, azterketa batean nota ona ateratzen badugu, ikaskideen aurrean arrandiaz ospatu beharrean, zu trebeagoa zaren ikasgai horretan gehiago kostatzen zaienei laguntzen saiatuko gara.

Besteekin partekatzen badugu, eskerrak ematen baditugu eta barkamena eskatzen badugu, askoz zoriontsuagoak izango gara, seguru, eta gure Ama Ona bezalakoagoak izango gara, pixka bat soilagoak.

ABESTIA: Algo sencillito, Marta Santos

https://www.youtube.com/watch?v=E3DssUsnWEU&list=RDE3DssUsnWEU&start_radio=1

EBANJELIOA:

Egun batean, Jesusek mila gauzarekin larrituta ikusi zuen jendea, eta esan zuen:

—Begira, ez hainbeste korapilatu. Jainkoaren bidea ez da itxurakerian ibiltzea, baizik eta bi-hotza garbi edukitzea eta gauzak egiaz egitea. Soil bizi dena arin ere bizi da, eta arin bizi denak hobeto entzuten du maitasuna. Zeren, azkenean, gauza txikiek aldatzen dute mundua.

Mostaza haziaren parabola. Mateo 13,31-32

Jesusek beste parabola hau kontatu zien:

—Jainkoaren erregetza gizon batek soroan ereiten duen mostaza haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zuhaitz egiten, txoriek etorri eta adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza.

Asteko konpromisoa:

Astean zehar, bilatu soiltasunez zoriontsu egiten gaituen ekintza, pertsona edo gauza bat.



Maiatzak 17:

Lagunak zaindu behar ditugu, eta elkar maitatu garen modukoak izanda, Jainkoak irakatsi zigun bezala.

Baliabideak:

EBANJELIOA: Joan 15, 11-15

"Hau guztia nire poza zeuengan izan dezazuen esan dizuet, eta poz hori bete-betea izan dadin. Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar nik maite izan zaituztedan bezala. Ez die inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino. Zuek nire adiskide izango zarete, nik agintzen dizuedana egiten baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiaren asmoen berri; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazitako guztia adierazi baitizuet".

FILM LABURRA: *El valor de la amistad*

<https://www.youtube.com/watch?v=jdGPelico98>

DINAMIKA: "Nire aingerutxo guardakoa"

Ikasleekin lagun ezkutua egitea proposatzen dizuegu. Bakoitzak gelako pertsona bat zaindu beharko du gaur, haren premiei adi egon.

IRUDIA:



Asteko konpromisoa:

Laguntzen digutenei adi egotea eta gugatik egiten dutena eskertzea.

Maiatzak 24:

Baliabideak:

OTOITZA:

Eskerrik asko egun berri honengatik, Ama,
maite nauzun eta gidatzen nauzun hori, egunero gure inspirazioa zaren hori.
Beti zaude hori, zure maitasunarekin harrera egiten,

eta zure bihotz handiarekin ere bai.
Gure Ama Ona zara,
nora joan ez dakigunean
beregana jo dezakegun Ama Ona.

ABESTIA: Buena Madre

https://www.youtube.com/watch?v=minj-WWAJfQ&list=RDminj-WWAJfQ&start_radio=1

SAN MARTZELINOREN HISTORIA (Aita Champagnaten bizitzari buruzko liburutik hartua eta egokitua, 342-344 or.):

"Haurra zenetik, amari eta izebari esker, **Aita Martzelinok** ikasi zuen **Maria, Jesusen Ama**, asko maitatzen. Otoitz laburrak irakatsi zizkioten, eta Mariari buruzko istorioak kontatu. Hala, Mariarekiko maitasuna txikitatik hazten joan zitzaion.

Apaiz izatea erabaki zuenean, Mariari zion txera are gehiago handitu zen. Ama bati bezala hitz egiten zion egunero: planak, pozak eta ametsak kontatzen zizkion. Orduan ulertu zuen zer nahi zuen Jainkoak: berak pertsona askori laguntzea, Jesus maitatzen irakatsiz.

Martzelinok esaldi hau atsegin zuen:

"Dena Jesusi, Mariagatik; eta dena Mariari, Jesusentzat".

Alegia, egiten zuen guztia Mariari eskaintzen zion, Hark Jesusi eraman ziezaion. Hortaz, Martzelinoren ikasketak, lana eta proiektuak Mariaren zaintzapean zeuden beti.

Egun batean, otoitz egiten ari zela, ideia bat otu zitzaion: maisu errukiorren talde bat sortzea, haurrei Jesus ezagutzen eta maitatzen irakatsiko ziena. Maria izango zen haientzako eredu eta gidari, eta haren izenak bide bera egin nahi zuten gazte asko erakarriko zituen.


Halaber, Martzelinok **Mariaren hila** sustatu zuen, hileko egunak haren ontasun eta maitasunaren harira otoitz egin, kantatu eta ikasteko. Familiak eta haurrak ere Maria omentzeko eta eguna eskaintzeko biltzen ziren.

Hartara, Mariari zion maitasunarekin eta besteei laguntzeko gogoarekin, Martzelinok erakutsi zuen **Ama Onarengan uste osoa izateak eta gure egunerokoa hari eskaintzeak Jesusengana hurbiltzen gaituela eta ongia egiten laguntzen digula.**

Compromiso semanal:

Gaur, hilabete garrantzitsu honetan ikasitakoari buruz gogoeta egin nahi dugu, eta, amaitzeko, eskerrak emango ditugu hil honetan zehar zoriontsu egin gaituen keinuren batengatik. Oraingoan, gure Ama Onarekin partekatuko dugu. Ama Onari kontatu nahi diogun guztia post-it batean idatziko dugu, eta ikasgelan daukagun margolanaren ondoan itsatsiko dugu. Bestela, dena gutun-azal batean sartu eta Ama Onaren alboan ipiniko dugu. Berak lagunduko digu konpromisoei eusten, eta paper zatian idatzi ditugun horiek zainduko ditu.

Denok batera egingo dugu otoi: "Agur, Maria..."



10. EKAINA: Irudikatu dezakezu... hau hasiera besterik ez dela?

Hileko motibazioa

Zu zara gaur Champagnat. Eta ez da etorkizuneko perpaus bat. Zure keinuekin, konpromisoarekin eta bizitzarekin, Champagnaten espirituak bizirik jarraitzea eragiten duzu. Marista izatearen onena iristeko dago oraindik, eta zurekin hasi da. Ez geratu iraganean errotuta, baizik eta gaur eraiki dezakezun horretan. Zure historia marista osoa beste batzuen artean hasten den bizitza marista bihur daiteke. Zure historia marista ez da zurekin amaitzen. Aitzitik, zure baitan dago beste batzuegan bizitza marista ereiteko aukera.

Ekainak 1:

Baliabideak:

BIDEOA: "Marcelino Champagnaten ametsa".

<https://youtube.com/watch?v=PW4bRHGjiAM&feature=shared>

IRUDIA: Behatu irudiari, eta partekatu horri lotutako hitz edo sentimendu bat.



MARTZELINORI BURUZKO IPUINA:

Bazen behin, mendiz inguratutako herrixka batean, Martzelino izeneko gazte bat. Martzelino oso alaia zen, oso langilea, eta egundoko bihotza zeukan.

Egun batean, herrian zehar zebilela, irakurtzen eta idazten ez zekiten haur asko ikusi zituen, inork ez zien-eta irakasten. Horregatik, bihotza pixka bat goibeldu zitzaion.

—Ezin dut onartu haurrak ikasi gabe haztea —pentsatu zuen Martzelinok.

Eta ideia eder bat bururatu zitzaion: haur guztiak ongi etorriak izango ziren eskola bat sortzea.

Martzelino eskola eraikitzen hasi zen bere eskuekin. Mailukatu, zura moztu, garbitu... Ekin eta ekin, nekatu gabe!

Eskola prest zegoenean, gizon on eta eskuzabalei deitu zien, irakasten lagundu ziezaioten. Anaia marista bihurtu ziren gero.

Eskolan, haurrek gauza asko ikasten zituzten, baina garrantzitsuena zera zen, maitatuak sentitzen zirela. Martzelinok hau zioen beti:

— Haur bat hezteko, maitatu egin behar da.

Eta hala, Martzelinori esker, haur ugarik ikasi, barre egin eta amets egiteko leku bat izan zuten.

Orain, nahiz eta Martzelino jada ez dagoen, haren eskolek irakasten jarraitzen dute mundu osoan zehar, maitasun eta ontasun mezua helarazten.

Eta hau hala ez bazan... sar dadila kalabazan.

ABESTIA: Ven, Marcelino

Bideo hau aukeratu dugu, Martzelinoren bizitzari buruz gogoeta eginarazten digulako, eta oso abesti motibatzailea du atzealdean. Hala, eguna ongi eta irribarretsu hasiko dugu:

https://youtu.be/Afjn-Onbz8s?si=m43pVdD7Zo4O_Qxl

Asteko konpromisoa:

Ekainak 7:

Baliabideak:

BIDEOA: Familia

<https://youtu.be/daNRoUoSRGo?si=Vlt9XiMVG-VdxITL>

GOGOETA:

Familia marista maitea:

Gaur, une batez gelditu nahi dugu, pentsatu eta eskerrak emateko. Zenbaitetan, hain bizkor ibilita, ingurura begiratzea eta Jainkoak egunez egun oparitzen digun on guztia deskubritzea ahazten zaigu.

Eskerrik asko, Jauna, osatzen dugun familia marista handi honengatik: beren ereduarekin irakasten diguten anaiengatik, bidean pazientziaz laguntzen diguten maisu-maistrengatik, eta gure lagunengatik, haiekin barreak, jolasak eta ikasbidea partekatzen baititugu. Topatzen dugun pertsona oro opari bat da, gehiago maitatzen ikasteko aukera bat.

Egunero bizitzen dugunari buruz ere pentsatu nahi dugu:

- Norbaiti lagundu diogu?
- Adeitsuak izan gara?
- Jesusen gonbidatzen gaituen bezala entzun dugu, bihotza zabalik alegia?

OTOITZA:

Eskatu nahi dizugu, Jauna,

hazten laguntzeko, Martzelino Champagnatek jardun zuen bezala:

soiltasunez, alaitasunez eta zerbitzatzeko prest dagoen bihotz batekin.

Mariak bezala, ona denari

"bai" esaten jakin dezagula, nahiz eta batzuetan kostatu.

Irakatsiezaguzu besteentzako argi izaten,

gure eskola zaintzen, elkar errespetatzen

eta denok familia marista eder honen parte

sentitzen garen leku bat elkarrekin eraikitzen.

Eskerrik asko, Jauna, gure ondoan egoteagatik gaur eta beti.

Amen.

ABESTIA: *Athenasen Contigo, Maria* abestia entzungo dugu:

<https://www.youtube.com/watch?v=kkVtd-kam6A>

Asteko konpromisoa:

Ekainak 14:

Baliabideak:

ABESTIA: *I'll be there for you, Friends*

<https://youtu.be/xaGcWybx6rI?si=lqq9Cgucda9Q5CSR>

Gaur, gure egunaren une bat baliatuko dugu gure lagunei buruz pentsatzeko eta gugatik egiten duten guztiagatik eskerrak emateko.

Abestia entzun ostean:

- Lagunentzat beti hor zaudela uste duzu?
- Zer egin zenezake, hori hobetzeko?

EBANJELIOA: Joan 15,13

"Ez die inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino". Jesusek adiskidetasun eredia eskaini zuen, bere bizitza jarraitzen diotenen alde eman bait-zuen. Maitasun desinteresatu hori izan beharko litzateke gure jomuga.

ABESTIA: *Cuenta Conmigo, Rio Roma*

Abestia adi-adi entzungo dugu. Adiskidetasunari buruzko oso mezu polita dauka.

<https://youtu.be/WX0Ff2AWfF8?si=rhttpJBouqaBsoV9>

OTOITZA:

Jesus Jauna,
eskerrak ematen dizkizugu adiskidetasunaren opariagatik,
bidean jartzen dizkiguzun ikaskideengatik,
egunak alaiagoak eta politagoak izatea eragiten dute eta.

Gure lagunak zaintzen laguntzeko eskatzen dizugu,
gure lagunei entzuten, partekatzen,
barkatzen —erraten dugunean—
eta bake giro bat elkarrekin eraikitzen.

San Martzelino Champagnatek irakatsi zigun
maitasuna keinu soilekin frogatzen dela.

Berak, gaztea zela, inork lagundu nahi ez zion kide bat ikusi zuen.
Gerturatzea erabaki zuen, hura ulertzea,
eta bere ondoan egotea txeraz eta pazientziaz.

Horrela ikasi zuen **lagun onak direla besteak sekula bakarrik uzten ez dituztenak**,
batez ere gaizki pasatzen ari direnean.

Ama Ona,
irakatsiezaguzu bihotz handia izaten,
besteei samurtasunez begiratzen
eta lagun izaten, Jesus lagun izan zen moduan.

Amén.

Asteko konpromisoa:

Ekainak 21:

Baliabideak:

MOTIBAZIOA:

Ikasturtearen amaieran gaude ia-ia. Asko ikasi dugu, barre egin dugu, une onak partekatu ditugu... Eta une zailak ere bai. Batera lan egiten dugunean, elkarri laguntzen diogunean, bakarrik lortu genezakeena baino gauza handiagoak lortzen ditugu. Ikaskideren batek lagunduko zizuen askotan, ziur.

Hortaz...

- Eman eskerrak zuretzat ikaskide ona izan den norbaiti.
- Eskatu barkamena, nahi bezain ikaskide ona izan ez bazara noizbait.
- Eta agindu zerbait, etorkizunerako: "Datorren ikasturtean are lagun hobea izango naiz, ahal dudanean lagunduko dut eta elkarrekin lan egiteak zer esan nahi duen gogoratuko dut".

FILM LABURRA: *El erizo*

<https://www.youtube.com/watch?v=vrj3uVn118s>

GOGOETA:

Film laburrean, arantzak dituen triku bat ikusi dugu. Arantzengatik, hain zuzen ere, beste animaliak urrutiratu egiten dira edo hurbiltzeko beldurra daukate. Denok jabetu gaitezkeen zerbait sinboliza dezake horrek: batzuetan, "desberdinak" gara, eta horrek besteak izutu ditzake edo traba egin diezaieke.

Aitzitik, garrantzitsuena ez da zer alde dagoen, nola erantzuten dugun baizik: animalia batzuek pauso bat ematen dute aurrera, trikua ulertzen ahalegintzen dira eta harekin bizitzeko aukera ematen duen irtenbide bat bilatzen dute, mina ez hartzeko modukoa. Hori enpatia, errespetua eta zubiak eraiki nahi izatea da, ez hormak.

Guretzat, hau esan nahi du:

- Ez da norbait baztertu behar itxuragatik soilik.
- Elkarrekin bizitzeko sormenezko moduak bilatu ditzakegu, bakoitzaren ezaugarriak aintzakotzat hartuta.
- Besteei laguntzeko, baliteke egokitu behar izatea: dena ez da berdin konpontzen guztientzat.
- Azkenik, galdera hau egin dezakegu: zer egin dezaket nik, "desberdin" sentitzen direnak taldeko senti daitezen?

Bideo hori aukeratu dugu batzuetan ahazten zaigun zerbait modu erraz eta politean gogorarazten digulako, hau da, egun bakoitza hazteko, ongia egiteko eta besteengana eta Jainkoarengana hurbiltzeko aukera bat da. Mezu hori gurekin goiz osoa egotea nahi dugu, hemen ikusten duguna hitzetara, erabakietara eta bihotzera ere eramanez.

OTOITZA:

Jauna,
eskerrik asko amaitzera doan ikasturte honengatik:

ikasi dugun guztiagatik,
egin ditugun lagunengatik
eta partekatu ditugun uneengatik.

Eskerrik asko irakasleengatik,
familiengatik
eta egunez egun gure ondoan dauden guztiengatik.

San Martzelino Champagnatek bezala,
soilak eta apalak izaten jakin dezagun eskatzen dizugu,
eta bihotz handia eduki dezagun, besteei laguntzeko.
Ez dezagula sekula ahaztu txerazko keinu bakoitzak
politago egin dezake inguruan ditugunen bizitza.

Ama Ona,
zaindu eta babestu gaitzazu,
irakats iezaguzu samurtasunez begiratzen,
ausartak izaten,
eta Jesusengan uste osoa izaten beti.

Egon gure ondoan oporraldian
eta lagundu iezaguzu ilusioz eta gogoz itzultzen,
hazi, ikasi eta
eta ikaskide onak izaten jarraitzen.
Amen.

IRUDIA:



Asteko konpromisoa:

Urte hau txaloka ixtera gonbidatzen zaituztegu, bizi izan dugunaren alde, eta datorrenagatik ilusioz bete.

Ikasturteko azken aste hau zoriontsua izatea opa dizuegu!